

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

## 2021eko UZTAILAREN 5eko

### BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (20:00tik goiti), Corinne Othatceguy (19:50 arte), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Peio Etcheleku (20:00 arte), Corinne Othatceguy (19:50tik goiti), Jean-Paul Eyherachar, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Michel Duthilleul, herri kontseilariak

Ahalordeak: Corinne Othatceguy-k Yolande Huguenard-i (19:50tik goiti), Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri, Roger Barbier-ek Maud Gastigard-i, Bernadette Remeau-k Robert Poulou-ri, Michel Duthilleul-ek Nathalie Aïçaguerre-ri.

#### – Saioko idazkariaren izendapena.

**Biltzarkideek aho batez, Isabelle AYERBE hautatu dute saioko idazkari izateko.**

#### – Iragan bi biltzarren akten onarpena.

2021eko martxoren 29ko eta apirilaren 12ko aktetan egiteko galdegin diren aldaketak egin dira. Nehork ez zuenez deus gehitzeko, bi aktak aho batez onartu dira.

#### **40 – Oihanburu bideko lur sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea**

Magis jaunak oroitarazi du DUFOURD Andereak bereak diren Oyhamburuko bideko lur sailetan etxebizitza batentzako eraikitze baimena eskuratu zuela 2020ko abenduaren 1ean. Lur sail horien zati bat baztertua izan da herriko errepidea zabaldu ahal izateko. DUFOURD Andereak onartzen du AI 190 eta 192 lur sailak (orotara 24 m<sup>2</sup> inguru) herriko etxeak 4 350 €ko lanak egitearen baldintzarekin uztea, hots:

- Ehaitiarena bideko xeilaren sartzea harriztatzea, guti gora behera 25 m<sup>2</sup>ko azalera batean,
- xeila berriaren zutoinen ezartzea,
- jakinez ere, herriak, lurren eskuratzeko, orain dagoen hesia bota beharko duela eta berria egin, oraingoa bezalakoa, eta gastuak bere kontu izanen direlarik.

Herri biltzarkideei eskatu zaie lur sailen eskuratzea eta eremu publikora pasatzea onartzea.

Bacardatz jaunak adierazi du lurren eskuratze hori lurraren erostea bezala dela. Izan ere, lanen metro karratuko prezioa eta jokoan den azalera kontuan hartzen badira, 200€ m<sup>2</sup>ko ematen duela. Pixka bat garestia iruditzen zaio euro sinbolikoaren truke egin diren beste eskuratzeen ondoan.

Magis Jaunak baietz ihardetsi dio.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

#### **41 - Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: herri arteko errepide, sare eta antolamendu zerbitzuaren esku hartzeendako hitzarmena**

Magis Jaunak oroitarazi du 2020ko martxoaren 2ko erabakiz, herria Tokiko Kudeaketarako Agentziaren Herri arteko Errepideen Sare eta Antolamenduen Zerbitzuko bazkide bilakatu dela. Horri esker herriak, TKAPren eskuhartzea eska dezake egingarritasun ikerketen egiteko, eta hori dela-eta, Herriak zerbitzu hori baliatu nahi du Behereko Plazako eskolen karrakako antolamendu proiektuarentzat.

Proposatuta du Herria eta TKAPren arteko hitzarmen baten egitea, behin betiko proiektua diseinatzeke behar dien lan denboreen kopurua zehaztuko duena, besteak beste (behin betiko aitzin proiektua, planoen egitea, lanen eginarazteko eskaera orrien egitea). Zerbitzu horrek 280€ kostatzen du egun erdi bakoitzeko, hots 5 800€ honako elementuen arabera:

- Behin betiko aitzin proiektuaren egitea: 9 egun erdi,
- Proiektuaren planoen eta eskaera orrien egitea: 12 egun erdi.

Bakardatz jaunak galdegin du ea beste bulego bati aurrekontua eskatu ote zaion, TKAPren eskaintzarekin alderatzeko.

Magis Jaunak ezetz erantzun dio, eta zehaztu du TKAPren Errepide eta Antolamendu Zerbitzuko harpidetza dela-eta, TKAPk jadanik aitzin proiektu bat abiatu duela, eta asmoa dela haiekin segitzea. Gehitu du TKAPren lanaren balorazioa eginen dela lanen ondotik.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

Corinne Othatceguy anderea gelatik atera da.

#### **42 – Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoa: Euskal Pass lankidetzaren hitzarmena**

Irastorza jaunak biltzarkide guzietan solasgaiekin batera igorri zitzaizen oharra irakurri du.

Arnaga etxeak, 2019an abiatu zen Euskal Pass eskaintzan parte hartu nahi lukeela erran, eta Herri Biltzarrari eskatzen dio Auzapezari baimena eman diezaion Euskal Pass lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoarekin, honako prezioekin:

- 5 eguneko Euskal Pass: 45 €
- 5 eguneko Haurren Euskal Pass: 30 €
- 48 orduko Euskal Pass: 25 €

- 48 orduko Haurren Euskal Pass: 17 €

Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoak eskaintza horren bidez sartu direnen sariak hilabeteka itzuliko dizkio gune bakoitzari. Itzulera sariak 2019ko sari berak dira:

- 14 urtetik gorako helduak: 6 €
- 6 eta 13 urte arteko haurrak: 2,50 €

Auzapez jaunak adierazi du uzkur dela 2021erako aurreikusia den prezioen emendatzearekin, eta denboraldi ertaineko produktu horren osoki berrikustea eskatu duela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua

### **43 – Dirulaguntza.**

Auzapezak Herri Kontseiluari proposatu dio San Mixel Garikoitz kolegioari ez ohiko 1000€ko dirulaguntza bat ematea, Chœur de Colibris abesbatzaren hezkuntza eta kultur proiektuen laguntzeko.

Oroitarazi du, iragan martxoaren 24ean, Arnagako lorategiko iturriaren inguruan, 185 ikaslek sekulako performantzia eskaini zutela: Beethoven-en 5. sinfonia « body tap » modura interpretatu zuten, alegia, gorputza perkusio tresna bezala erabiliz.

Nelly Guilhemsans musika irakasleak prestatuak eta zuzendurik, Kanboko ikastetxe pribatuko « Chœur des Colibris » abesbatzako ikasleek Beethoven-en sortzearen 250. urtemuga ospatu nahi izan zuten.

Performantzia Youtube-n dago ikus eta entzungai, Beethoven-en obraren gainera. Soinu eta irudien grabaketaren kalitateak, drono bati esker, aipamen anitz izan du Internet eta sare sozialetako erabiltzaileengandik, eta horri esker Kanboren ospea lau haizetara hedatu da.

Gainera, oroitarazi du ez dela lehen aldia San Mixel Garikoitz kolegioaren dinamismoari esker Kanbo herria goraiatua dela (gure dantza kulturaren inguruko proiektuak, Elikadura Bankua eta Restos du Coeur elkarteentzako bilketak, Ste Elisabeth zaharren egoitzako egoiliarrekin belaunaldien arteko trukaketak). 2019an, kolegioko 200 ikaslek ZAZ kantaria lagundu zuten Baionan eman zuen kontzertuan.

Hirigoyen anderea ados dago auzapezaren erranekin, ikusgarri zoragarria izan da Arnaga eta Kanbori gorazarre berezia egiten diena. Halere, bere ustez, 1000€ko laguntza bidegabetzat hartua izan liteke haur guztiengandik, Kanboko ikastetxe guztietako ikasleek urtero parte hartzen baitute arte, kultura eta humanitario proiektuetan beren irakasleen laguntzarekin; horiek ere gastuak badituzte, beren lanaz harro dira nahiz eta hain oihartzun handia ez ukan, eta beraz haiek ere aitortza bat merezi dutela.

Auzapezaren aburuz, ez da soilik ikusgarritasunarengatik. San Mixel kolegioak, bereziki pandemia egoeran, egin duena agerian ezartzearekin ez ohiko gertakari batekin bat egiten dugu, baina horrek ez du erran nahi beste ikastetxeek egiten duten lana ez dugula estimatzen, eta are gutiago injustizia bat sortzen dugula beste eskolekiko. Nork lan horren ikuspegi murriztailea ukan dezake, baina hori ez da gure kasua.

Hiriart-Urruty andereak lan ederra izan dela azpimarratu du eta galdetu du zenbat kostatu duen ekintza horrek.

Auzapezak erantzun dio proiektuaren gastuak 2 400 €koak izan direla.

Hiriart-Urruty andereak beste kolegioekiko zuzentasun eskasa azpimarratu du, eta besteek zer egiten duten ikustera joan dadila proposatu dio.

Auzapezak Hiriart-Urruty andereak erranak entzun ditu, baina ez du uste pandemia garaian egin den proiektu biziki egokia sustengatzea zuzentasun gabea denik. Kanboren ospearen aldeko publizitate naturala da.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Lilian Hirigoyen andereak ez du bozkan parte hartu.

#### **44 – Arnagako 2021eko denboraldiko ikuskizunen tarifak**

Irastorza jaunak Herri Biltzarrari proposatu dio Arnagako 2021 denboraldiko ikuskizunen tarifak honela finkatzea:

- Tarifa osoa: 15 €
- Tarifa berezia (12-18 urte artekoak, ikasleak, langabetuak, elbarrituak): 12 €
- Urririk: 12 urtetik behera.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

#### **45 – AGAZ (ALSH): 2021 denboraldiko «ados» proiektua eta tarifak**

Aristizabal andereak oroitarazi du 2015etik Kanboko herriak Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroaren eskumena duela, eta horrek bi urte eta erdi, eta hamahiru urte arteko haurrak hartzen dituela. AGAZak eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko harrera antolatzen du animatzaile talde eta herriko langile batzuekin. Animazio taldeari dagokionez, Herriak deialdi bidezko kontratua pasatu du UFCV (Union Française de Centres de Vacances) batasunarekin zerbitzu emaile gisa.

Aurten, inkesta bat egin da herriko hiru kolegioetan eskolatuak diren ikasleekin herriaren gizarte eta hezkuntza politika ongi eramateko xedearekin. Inkestak agerian eman du 14/15 urteko nerabeek beren autonomia eta loratzea ahalbidetuko lituzketen aisialdiak eskatzen dituztela, betiere beren beharrak kontuan izanik.

Herria eta UFCVrekin hitzarturik, Hezkuntza Haurtzaro eta Gazteria zerbitzuko arduradunak Kanbon bizi edo eskolatuak diren gazteentzako jarduera proiektua proposatu du, aisialdi, kirol eta kulturarako sarbidea ukan dezaten.

Lehen funtzionamendu urterako, 9 eguneko eskaintza proposatzen du, 2021eko uztailaren 8tik 29ra, astean hiru egunez (besta egunak kanpo), hiru gaualdi (22ak arte) antolatuz ostegunetan. Partehartzaile kopurua hamasei gaztera mugatua da.

Familien diru parte hartzea FaLK-en familia koefizientearen arabera izanen da, bi urte eta erdi eta hamahiru urte artekoen tarifakazioarekin bat etorritik. Kanpoan eginen diren jarduerentzat, ordea, 7€ko gehigarri bat eskatuko da haur bakoitzeko.

Herri Biltzarrari proposatzen dio:

- 14/15 urte artekoentzako zerbitzu proiektua onartzea,
- tarifak onestea,

- Auzapezari baimena ematea kontratuari emendakina izenpetzeko UFCV-rekin, 14/15 urtekoentzako animatzailea eskura ezar dezan.

Hiriart-Urruty anderearen ustez tarifa horiek garestiak dira. Oroitarazten du Haurtzaro Gazteria batzordean jadanik erran zuela, eta Aristizabal andereak ihardetsi ziola 3000€ko dirulaguntza bat bazegoela.

Aristizabal andereak erantzun dio 3 000 €ko aurrekontu bat bideratuko zela (gehienez 85 gazte/jarduerentzat) izena emanen duten nerabeen arabera. Bistan da gehieneko aurrekontua dela hau, eta partehartzaile kopuruaren arabera egokituko dela.

Aurrekontua ikusirik, Hiriart-Urruty andereak galdetu dio ea familien partehartzea apalduko denez.

Auzapezak ihardetsi dio familientzako kostua berdina izanen dela. Tarifak berrikusten ahalko dira datozen urteetan lehen esperimentazioaren emaitzen arabera.

Hiriart-Urruty andereak aurtengo izen emate kopurua jakin nahi luke.

Aristizabal andereak erantzun dio ordurako %27 izen emate gehiago izan dutela iazko zenbakiekin alderatuta, eskaera azkarrarekin sei eta zazpi urte artekoentzat eta bereziki hamar eta hamahiru urte artekoentzat. Nerabeei dagokienez, momentuz hiruzpalauk besterik ez dutela izena eman bederatzitik bost egunentzat. Nahiz eta programa biziki interesgarria izan, familiek lehentasuna eman diote AGAZera haur gazteenak igortzeari, hots bakarrik egon ezin dutenak. Izena eman duten nerabeak aitzineko urteetan AGAZean ibiltzen ziren horiek berak ziren. Lehen aldia da horrelako proiektu bat proposatzen diegula nerabeei eta bizpahiru urte behar dira halako gauzak zinez martxan jar daitezen.

Hiriart-Urruty andereak erran du interesgarria litzatekeela urte bukaeran galdeketa elebiduna egitea familiei, jakiteko zergatik ez dituzten nerabeak inskribitu.

Aristizabal andereak hala egingen dela arrapostu dio.

Auzapezak zehaztu du jarduerak eskaini behar zitzaizkiela nerabeei, horretan denak ados dira. Aurkeztu den programa oso interesgarria iruditzen zaio. Uda bukaeran bilana egingen da behar diren ondorioen ateratzeko, eta beharbada prezioak berrikusi beharko direla.

Beyrie anderearen ustez, gurasoek ez badute beren haurren izena ematen diru arrazoiengatik.

Auzapezak berretsi du eskaintzen denaren kalitatea neurtzeko ebaluazioa egin beharko dela. Kritika onenak parte hartu dutenengandik jinen dira dudarik gabe.

Beyrie andereak ohartarazi du nerabeentzako programa aurkezten duen esku-orria frantses hutsean dela. Kanboko eskola guztiek murgiltze edo elebidun irakaskuntza eskaintzen dute; ulertuko luke denbora eskasiak dituela halakoak eragiten, baina berak mespretxua sentitzen du eta dolu zaio Kanbon oraindik halakoak gertatzea.

Aristizabal andereak mespretxuarena arrunt ukatzen du. Ez zen batere bere xedea ezta ere AGAZeko zuzendariarena. Iaz biziki zaila izan da programak osatzea, zeren aisialdi eta jarduerak eskaintzen dituzten eragileek edo ez zuten lan egiten edo programatutako taldeak ezin baitzituzten hartu. Eta aurten zilegi zen iaz hartu ezin izan zituztenak hartzea. Horregatik da esku-orria azken momentua atera.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du eskoletara igorri zen galdeketa ere frantses hutsean zela. Xalbador kolegioak itzulpena egin behar izan du ikasleei igorri aitzin.

Mezpretxuari dagokionez, Auzapez jaunak uste du egoerari buruzko iritziak ematerakoan ñabardura eta tolerantziaz egin beharko litzatekeela. Huts egite bat baldin bada, daotzen urteetan konponduko da.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

Corinne Othatceguy anderea gelatik atera da.

## **46 – AGAZ: Herria, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi kolegioaren arteko hiruko hitzarmena**

Aristizabal oroitarazten du 2013tik Kanbo herriak Errobi kolegioaren lokalen eta materialaren zati bat okupatzen eta erabiltzen duela AGAZen eskolaz kanpoko jarduerentzat, gehienez 150 pertsonentzako haur eta animatzaileak barne.

Aurten, Errobi kolegioari eskatu diogu lokalak udako oporretan erabili ahal izatea 2021eko uztailaren 7tik agorrilaren 14era, ondotik zehaztu bezala:

- Bazkarietzako, astelehenetik ostiralera, 12etatik 17ak arte (jangela eta self-eko arranparako sarbidearekin kolegioko ataritik eta ikuztegiaren zati bat, hozkailu eta mikro uhin labea, eta komunak),
- Kirol jarduera eta piknikentzat, Astelehenetik ostiralera, du lundia eta vendredi de 10:30etik 14:00ak arte (ezker pareta).

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **47 – Frantziako Centre National du Livre (CNL) zentroari laguntza eskatzea.**

Aizpuru andereak oroitarazten du Frantziako Liburu Zentro Nazionalak (CNL) laguntza berezia eskaintzen duela liburutegiaren berpisteko, paperezko liburuak eros ditzaten, liburutegia independenteen berrabiatzea laguntzeko eta liburutegietako funtsen osatzeko.

Laguntza horrek "liburu" aurrekontuaren %30 har dezake. Baldintzak dira, 2021eko liburuaren aurrekontua 2020koa baino handiagoa izatea, eta gutxienez 5000€ko gastua egitea. Horiek horrela, 2020ko liburuaren aurrekontua berdintzeko 2 400€ gehitu beharko genituzke eta CNLen laguntza orduan 1 890€koa litzateke.

Herri Biltzarrari proposatu dio, batetik 2021ean liburu berrien eskuratzeko 2400 €ko kopurua bozkatzea, datorren aurrekontu aldaketan txertatuko dena, eta bestetik CNLri dirulaguntza eskatzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **48 – Hartzekoen artxibatzea**

Aizpuru andereak oroitarazi du Anne-Marie Pérez, Kanboko diruzainak, 973,65 €ko hartzekoak (herriak eskuratu ezin izan dituen diru kopuruak) artxibatzeko eskaera egin duela. Hartzeko hauek 2018 eta 2020koak ziren. Kopuru horien eskuratzeko egin zitzakeen auzibide guztiak eginik, biltzarkideei proposatzen dio eskuratzeko faktura horiek artxibatzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **49 – Aurrekontu nagusiaren 1. aldaketa erabakia.**

Auzapezak aurrekontu nagusiaren 1. aldaketa erabakia aurkeztu du, zeina orekatua den bai funtzionamenduan (4 470 €) baita inbertsioetan ere (605 575 €), izan sartzek nola gastuak.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

Hiriart-Urruty andereak Nivaldia erosteari buruzko xehetasunak eskatu ditu, Habitat Sud Atlantique (HSA) erakundeak 583 200€ itzuliko baititu.

Auzapezak ihardetsi dio Herriak nahiago zukeela ToLFEP-ak bere gain har zezala eragiketa hori, baina lehentasunez eskuratzeko epe laburregiak zirela-eta, ezin izan dela hala egin. Ondorioz, Euskal Elkargoak Kanbo herriari delegatu dio bere lehentasunez erosteko eskubidea ondasun hori eskura dezan. Erosketa eta dagozkion gastuak HSA-i fakturatuko dizkiogu soilik lehen aldiz etxebizitza erosten dutenentzako etxebizitzak egin ditzan (errenta solidario bidez).

Hiriart-Urruty andereak ohartarazten du beraz posible dela %100 soziala egitea.

Magis jaunak baietz, hori posible dela ekintza publikoa denean. Alabaina, operadore pribatua denean debekatua da %100 soziala egitea.

Herriak Clémentine-Hélène Dufau-ren bi margolan 35 960 €tan erosteaz, Beyrie anderearen iduriz pena da bere taldeak ez baitu horren berri izan. Nahiz eta hautetsiak izan, prentsa bidez jakin dute.

Auzapezak erantzun dio enkante salmenta horretan erabakia biziki fite hartu behar zuela eta gauza ona izan dela epe laburrean jardun ahal izatea bi margolan horien eskuratzeko.

Beyrie andereak zehaztu du proiektua ona ala txarra izanik ere, egiteko modua duela salatzen, eta galdetu du non den hor eztabaida demokratikoa.

Auzapezak ihardetsi dio delegazioak onartu zaizkiola bere agintaldi hasieran erabakiak hartu ahal izateko. Fite erabaki behar zen eta hala egin du. Inbertsio bat da, eta pozten da halako margolanak eskuratu ahal izanaz. 29 000 € kopuru aipagarria da, baina Arnaga tresnak eragiten dituen diru sarrerak direla-eta, logikoa da noizean behin halako inbertsioak egitea.

Aiçaguerre andereak galdegin du nola gertatzen diren enkante salmenta horiek, ezen ez baita erabakirik hartu halako enkante batean erabiltzeko diru kopurua mugatzeko.

Poulou jaunak erantzun dio enkanteak denbora gutxi lehenago jakinarazten direla. Bi margolan horiei dagokienez, Frantziako estatuak, hasiera batean, lehentasunez erosteko eskubidea erabiliko zuela iragarri zuen. Salmenta apirilaren 23an izan zen, ostiralarekin, eta bezperan 19:00etan Frantziako

Kultura ministerioak Kultur Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzaren (KGEZ/DRAC) bidez jakinarazi zuen epeak laburregiak zirela eta ondorioz ezin zuela enkantean parte hartu. Beraz, urgentzian erabakia hartu behar zen margolanak eskuratzeko ziurtasuna ukateko. Margolanen balioa 40 000 € eta 60 000 € artean baloratua izan da. Poulou jaunak salmenta komisarioa deitu eta jakin izan du erreserba prezioa bazela (saltzaileak onartuko lukeen preziorik apalena) eta Auzapezari proposatu dio prezio horretarainoko erosteko proposamena egitea. Salmenta segurtatua zenean, komisarioak jakinarazi duenean Kanboko herria zela erosle eta margolanak Arnaga museora joanen zirela, gela osoa zutitu da eta txalokatu du. Bukatzeko, Poulou jaunak dio Arnagaren ondareari eta ospeari pentsatu behar dela, eta margolanen prezioa Arnaga bi urtez ezkontzentzat alokatuz estaltzen dela.

Auzapezak gehitu du KGEZak erosketa hori %45 arte lagundu dezakeela.

Bacardatz jauna harrিতua da enkante salmententzat ez izatea informazio eperik eta aldizkari ofizialean argitaratzerik, eta errespetatu beharreko eperik. Galdetu du zer egunetan argitaratu den salmenta et zer egunetan egin zaion KGEZi lehenetasunez erosteko eskubide eskaera.

Poulou jaunak ihardetsi dio, higiezin enkante salmententzat ez bezala, honakoetan eperik ez dagoela.

Bacardatz jaunak datak galdegin ditu.

Poulou jaunak salmentaren kronologiaren xehetasunak eman dizkio.

Hiriart-Urruty andereak eskerrak ematen dizkio xehetasun guzti horientzat. Bizkitartean, Beyrie anderea harrিতua da margolan horien erosketaren berri prentsan irakurri izanaz, non gainera idatzia den prezioa sekretupean egon zela! Nola posible da, ordea, diru publikoa baita, kanboarren dirua! Diru zama handia da. Lehenxeago aisialdi zentroaren prezioak aipatu baitira, zergatik diru hori ez da baliatzen familien laguntzeko? Baliteke herriak afera ona egin izana, baina gauzak horrela egiten direnean, hori ez da demokrazia.

Bukatzeko, Auzapezak adierazi du ezin dela beti eta sistematikoki, kasik arau bezala, Arnagarentzako erosten den gauza oro beste inbertsio eta funtzionamendu gastuekin konparatu. Kanbok baditu turismo eta ekonomia alorrean tresna biziki onak, eta Arnaga horietako bat da.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

## **50 – ANTIC: Open Data esperimentazio hitzarmena**

Lassus jaunak oroitarazi du ANTIC-ekin den hitzarmena, 2018an ANTIC elkarteak abiatu zuen laguntza zerbitzuari dagokiona, jakinez Euskal Elkargoak eman ziola eginkizun hori ANTIC elkarteari. Kanbo herria 2019an sartu zen programan, 2018an sartu ziren beste hamaika herriekin bilduz, Errepublika Numerikoaren aldeko 2016ko urriaren 7ko 2016-1321 frantses legea bete behar baitzuten.

2020 bukaeran, open data politika ezartzeko beharmendua zuten Ipar Euskal Herriko herrien erdiak horretarako gaitasunak eskuratu zituen. Ikaskuntza horren xede nagusiak dokumentuen formatatzean datza, datuak eskuragarri izan daitezen. Gauza anitz jokoan da: erakargarritasunaren hobetzea, berrikuntza sustengatzea, zerbitzu publikoaren modernizazioa eta herritarren ekintza



publikoaren gardentasun eta argitasunari buruzko eskakizuna. Datuen kudeaketa gero eta garrantzi handiagoko gaia da. Horregatik ANTIC-ek proposatu du datu publikoak irekitzeko urraspide kolektibo horrekin segitzea herriek baliabideak bateratu, praktika egokiak partekatu eta lankidetzak berriak sortzaten. Ingeniaritza gastuak ANTIC elkarteak hartuko ditu bere gain, eta horretarako beharrezkoa du Kanbo herriak proposatu zaizkion urraspide eta metodoekin bat egitea. Oroitu behar da, 2019ko otsailaren 25eko erabakiz, Herri biltzarrak onetsi zuela herriak Open Data esperimentazioan parte hartzea, eta ANTIC-ekin 2 urteko hitzarmen bat izenpetu zela.

Herri biltzarrari proposatu dio Open Data esperimentaziorako hitzarmena beste bi urterako luzatzea, eta Auzapezari baimena ematea hitzarmen horren izenpetzeko.

Bacardatz jaunak galdetu du esperimentazioaren bilanik egin ote den eta zer balio erantsi izan duen Herriarentzat.

Lassus jaunak jadanik adierazi duen bezala, formatatzeari buruzko formakuntza izan da bereziki. Epe bat eman zitzaien herri guztiei, lehen fasean baliabide gehigarriak ezarri gabe, dokumentuak formatatzeko borondatea eta gaitasuna egiaztatzeko, jakinez datu horiek gero dokumentu formatatuak hartzen dituen atari batean izanen direla. Formakuntza horrek trebatze ariketa txiki batzuetan datza, datuen partekatze batekin. Dirudenez, Kanbok dokumentuen formatatzeko eskakizunak betetzen dituen herria da eta bigarren zatian proiektu konplexuagoak landuko dira, lehentasuna izanik herria izan dadila bereziki hastapenean eskuragarri izanen diren gai eta datuak hautatuko dituen. Honen interesa da, alde batetik Kanboarrek eta enpresek edo administrazioek informazioak partekatu ahal izatea, eta bestetik kanpoko jendeek ere Kanbora jiteko informazio baliagarriak aurkitu ahal izatea. Gai guztiak sar daitezke, izan turismoa, nola biztanle berriak edo herriko jendea. Lehentasunak zehaztu beharko dira dokumentuak eta gaiak progresiboki eskura ezartzeko.

Bacardatz jaunak galdegin du noizko espero dezakegun Kanbon Data delakoa eskura ukaitea.

Lassus jaunak oroitarazi du oraingo hitzarmena aitzinekoaren luzapena dela ikaskuntza horretan sakontzeko. Helburu bezala finka dezakegu autonomia aski irabaz dezakegula gero txostenak guk tratatu, formatatu eta eskura ezartzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **51 – Asteroko ostiraleko merkatua: araudiaren moldatzea.**

Cadepond-Larronde andereak oroitarazi du 2021eko apirilaren 2an merkatu batzordea bildu zela. Bilkura horren solasgaietan zen merkatuaren araudia eta ondotik egin zaizkion aldaketa nagusiak zehaztu ditu.

Merkatari berriek elektrizitate sarera konektatzeko debekua dela-eta, Bacardatz jaunak galdegin du ez ote den posible Txikito karrikan bigarren elektrizitate hargune baten ezartzea potentzia arazoan konpontzeko.

Auzapezak ihardetsi dio galdera ona dela eta erantzun beharko zaiola.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **52 – Txakurrak Sindikatua: estatutuen moldatzea.**

Auzapezak oroitarazten du Txakurrak sindikatuak 2021eko maiatzaren 25ean bere estatutuak egokitu zituela Gixune herria partzuer bilakatu baitzen.

Herri biltzarkideei proposatzen die estatutuen aldaketa onestea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **53 – Hilobi kontzesio baten itzultzea.**

Auzapezak dio biltzarkide guziek izan dutela kontzesio jabe batek, 2018ko abenduan Kanboko hilerrian hartu zuen kontzesioa itzuli nahi zuenaren berri, (kontzesioa eta bi lekuko hilobia). Zehaztu du gaurko egunean kontzesioa ez dela erabilia izan eta ez dagoela hilobiraturik.

Herri Biltzarrari honakoa proposatu dio:

- itzulera eskaintza onartzea,
- denboraren araberako 342,09 €ko diru itzultze baten egitea, hain zuzen 2018ko abenduaren 17an hartu kontzesioaren 30 urtekoa 380 €tan baita,
- bi lekuko hilobiarentzat 2 115 € itzultzea ber momentuan hartu baitzuen.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **54 – Frantziako Oihanen Bulego Nazionalaren (ONF) eginkizunak: oihanen antolamendua eta berpizte plana**

### **a) Oihanen antolamendu proiektua.**

Goytino jaunak oroitarazi du Kanboko herri oihanak 25ha 9a-ko azalera duela eta oihanen erregimenaren menpe dela. 1999ko otsailaren 5eko erabakiz, herriak ONF-en esku utzi zuen oihanaren kudeaketa eta hogeituro urteko (1999-2018) hitzarmen bat izenpetu zuen herri oihanaren antolatzeko. Antolamendu proiektu hura iraungitua denez, antolamendu proiektu berria aztertu behar da.

Herri Biltzarrari proposatzen dio:

- oihan antolamendu proiektuaren printzipioa onartzea,
- ONF-i eskatzea oihan antolamendu txostenaren egiteko laguntza tekniko eta administratiboa bere gain har dezala,
- auzapezari baimena ematea eginkizun hitzarmen horren eta datxizkion kontratu eta dokumentu oro izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **b) BERPITZE PLAN PROIEKTUA: OIHANEN BERRITZE ATALA.**

Goytino jaunak oroitarazi du 2020 bukaeran Frantziako estatuak Interesa Adierazteko Deialdia (IAD/Appel à Manifestation d'Intérêt -AMI) bideratu zuela 2021-2022 aldirako, oihana berri eta klima aldaketari egokitzeko. Deialdi horren bidez kaltetuak diren zuhaitzen ordezkatzeko lanak %80 arte lagundu ditzake. ONF-ek herriko oihanen aitzin-diagnostikoa egin du eta lur sail batzuetan laguntza hori eskuratzen ahalko da. Besteak beste banda gorrien gaitzarengatik hiltzen diren Laricio pinuentzat balia genezake. ONF-en lehen ikerketen arabera honako programa aurreikusten da:

- osasun arrazoiengatik pinu helduen mozketak egitea (gutxi gora behera 300 m<sup>3</sup>), zeinek 6 000 €ko diru sartzeari emanen duten,
- 2-3 ha berriz landatzea oihanaren berriz osatzeko eta hektarea bakoitzeko 7 000 €ko kostu batekin. (Frantziako estatuaren %80ko laguntza eskura genezake programa horrentzat).

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- aurkeztu den ekintza programa onestea,
  - ONF kontratatzea berpizte programaren diruztatze txostena egiteko laguntza tekniko eta administratiboa eman dezan eta diagnostikoa egin dezan,
  - ONF egitasmodun izendatzea eginkizun horien egiteko,
- Auzapezari baimena ematea eginkizun-hitzarmen horren eta datxizkion kontratu eta dokumentu oro izenpetzeko.

Bacardatz jaunak galdegin du ea moztu behar den oihan eremua naturagune babestuen eremuan sartzen den.

Goytino jaunak baietz erantzun dio. Argiki herri oihan eremua da eta haren kudeaketa ONF-en esku eman da.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **– Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2021eko apirilaren 1etik ekainaren 19ra:
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 1
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 1
  - 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 2
  - 30 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1
- 2021eko maiatzaren 5eko erabakia: errepide lanen egiteko eskaera-orri bidezko esparru-akordio baten ematea S.A.S – SO.BA.MAT / S.A.R.L. E.C.R.D enpresei, urte baterako eta hiru aldiz berez berritzeko gaitasunarekin.
- 2021eko maiatzaren 20ko erabakia: lehentasunez erosteko eskubidea baliatuz, Ursuia etorbideko 5. zenbakian eta Termen arranparen 2.ean okupatua ez den etxebizitza duen jabego eraikiaren eskuratzea, 540 000 €ren truke, eta hauetatik 20 000€ saltzailearen gain (komisioa).

- 2021eko maiatzaren 28ko erabakia: lehentasunez erosteko eskubidea baliatuz, Ursuia etorbideko 23. zenbakian okupatua ez den jabego eraikiaren eskuratzea, 130 000 €ren truke.
- 2021eko maiatzaren 28ko erabakia: Arnaga – Edmond Rostand Museoaren suteen kontrako sistemaren hobetzea – merkatua ETS CHAPELET-SAINT-JEAN enpresari esleitzea, 92 891,65 €ko aurrekontuarekin.
- 2021eko ekainaren 1eko erabakia: Herriko eraikinen irisgarritasuna bermatzeko lanak - merkatuaren 8 atalen esleipena zergaz kanpoko 237 594,37 €ko kopuru orokor batekin.
- 2021eko ekainaren 3ko erabakia: Obraren Gidaritza eta Koordinazioa (OGK/OPC) eginkizun baten esleipena LECCIA bulegoari, Gurutze Gorriarentzako eraikin baten egiteko, zergaz kanpoko 5 661.25 €ko aurrekontu batekin.
- 2021eko ekainaren 3ko erabakia: herriko eremu publikoan bideo-babes sistema baten ezartzea– obra sustatzaileari aholkularitza eginkizuna - merkatua VYSYT enpresari esleitua, zergaz kanpoko 9 960 €tan.
- 2021eko ekainaren 4ko erabakia: 2021denboraldiko Arnagako lorategien bisitarentzako ez ohiko prezioak.
- 2021eko ekainaren 14ko erabakia: bertako Gurutze Gorriarentzako elkarte eraikin baten eraikitzea – merkatuaren 10 ataletatik 8 PSE enpresari esleituak 220 912,76 €ko aurrekontuarekin.
- Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea Belly etxearen eskuratzeko erabakia gerora egingen den etxe multzora sartzeko sarbidea ukateko hartu ote den.

Auzapezak ihardetsi dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduak biribilgunea onartu duela eta azpimarratu du biak osagarriak direla segurtasunarentzako.

Aiçaguerre andereak galdegin du ea biribilgune hori ezin ote den gorago egin, Belly etxea suntsituko baita.

Auzapezak erantzun dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko arduradunari galdera pausatu diola.

- Bacardatz jaunak Gurutze Gorriarentzako lokalaren eraikitzeari buruzko galdera egin du. Deialdien Batzordean aipatu izan zen epeak betetzera eta kalitatezko lana egitera idatziz engaiatuko ziren enpresei nota hobea emanen zitzaiela eta sekulan ez bazuten hitza betetzen kalte ordainak ordaindu beharko zituztela. Hori dela-eta, galdetu du ea obra batzordeak ezin ote duen lanen bukaerako ekitaldian presente izan.

Auzapezak ihardetsi dio printzipioz arrazoi duela, baina praktikan eta gaur egungo egoeran gehiago, enpresek zailtasunak dituztela hornidurak eskuratzeko ohiko epeetan.

Magis jaunak proposatu du obra batzordean horren bilana egitea.

- Bideo-babesari dagokionez, Beyrie andereak dio lehen paragrafoan honakoa idatzia dela: « Herri Biltzarrak gehiengoz onartu duela bideo-babes sistema baten ezartzea », alabaina, iruditzen zaio ikerketa izan zela bozkagai.

Auzapezak erantzun dio kopurua ikusirik (9 960 €), bistan da proiektu sustatzailea laguntzeko zerbitzua dela eta ez obren egitekoa.

- Bacardatz jaunak galdetu du noiz hasiko diren Gurutze Gorriaren lokaleko obrak.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio Duhalde enpresak agorrilean hasiko dituela zundaketak. Lehenago, argiteria publikoaren sarea eta euri urena desbideratuko dira.

## – Bestelako gaiak.

Nahi Dugun Herria taldeak bi galdera egin ditu.

- Lehena Hirigoyen andereak: puntu bat egin nahi du herriaren bizian euskara txertatzeko aitzinamendu kontratuari buruz: helburuen gauzatzearen bilana eta etorkizunerako aurreikusten direnak.

Etcheleku jaunak ihardetsi dio aitzinamendu kontratua urte bukaeran bukatzen dela. Kalitateari dagokionez, balorapen ertaina egin behar dela erran du, helburu batzuk ez baitira lortu, seguruenik anbizio handiegia izan delako hastapenean. Hemeretzi langile boluntario ziren hasieran, eta zerbitzuen antolaketak, batzuek beren postua uzteak, eta motibazio galtzeak, eta bidean abandonatzeak direla-eta, ororen buru bost eta zortzi langile artean izan dira formakuntza segitu dutenak. Zerbitzu anitzentzat markatu zen autonomiarako helburua (hots zerbitzuko langileen erdia elebiduna izatea, harrera eta lehen mailako itzulpenak egin ahal izateko). Bi zerbitzu identifikatu ziren horrela: harrera eta mediateka.

Itzulpenei dagokienez, orokorki helburuak bete dira. Herriak kasik sistematikoki elebidunez egiten ditu bilkuretarako deialdiak edo gomitak. Orain galdera izanen da jakitea ea indar hori segitu behar den ala ez, aitzinamendu kontratu berri bat izenpetuz. Iragan astean Euskal Elkargoarekin etapa bilana egin zen eta helburuak finkatzeko erabili zen diagnostikoa eguneratu beharko dugu. Gai hori gehiengoko taldeko batzordean eztabaidatuko da.

Formakuntza metodoak berrikusi edo egokitu beharko dira, zeren ikuspegi pedagogikotik, astean bi edo hiru oreneko kurtsoak hartzea zenbait urtez ez baita hain eraginkorra hizkuntza ikasteko, eta hain epe luzean motibazioa atxikitzea zaila baita bizian gerta daitezkeen gauzengatik. Epe luzeko formakuntzak eta formakuntza trinkoak konbinatzen dituen pedagogia eraginkorragoa omen da.

Beyrie andereak deitoratu du bilkura horretan ez parte hartu izana.

Etcheleku jaunak zehaztu du Euskal Elkargoko eta Herriko Etxeko aitzinamendu kontratuen erreferente diren pertsonak gomitatu zutela bilkura horretara. Helburua zen soilik etapa puntu baten egitea batzorde bat prestatu aitzin.

Beyrie anderea ohartu da azken bost urteetan ez dela bilakaerarik izan eta deitoratu du. Gaur egun ordea aktualitatea aldatu da, eta galdetu du ea Kanbok, beste herri batzuek bezala, aitzinamendu kontratuarekin batera hizkuntz gutxituen karta ere landuko ote duen.

Etcheleku ez da ados erran denarekin. Zehaztu du aitzinamendu kontratuaren eskema boluntarismoan oinarritzen dela eta antolaketa egonkorra behar duela. Eta herriaren borondate ezarekin ere ez dago ados. Kartari dagokionez, lurralde batzordearen bilkura batean horren berri izan zuen eta gai hori batzorde horretan aztertuko da.

Hirigoyen andereak hizkuntz gutxituen Europako gutunaren udal garapenaren elementu nagusiak azaldu ditu. Dirudienez, berrogeita hamar bat herrik izenpetuko lukete gutun hori. Kostatzen zio ulertzea zergatik Kanbon ez ditugun minutu batzuk hartu gai horren aipatzeko, ez baitezpada erabaki baten hartzeko, baizik eta gutxienez demokratikoki eztabaidatzeko; dolu zaio.

Auzapezak ihardetsi dio berari ez zaila dolu, ezen ohartzen baita bost minutu baino gehiago daramatela solasgaietan bestelako galdera bezala emana ez zen gai batez mintzatzen. Bestelako galderetako gaia zen herriaren bizian euskara txertatzeko aitzinamendu kontratuari buruzkoa: gauzatu diren helburuen bilana eta aurreikusiak diren ekintzak, eta horiei Etcheleku jaunak erantzun die. Hirigoyen anderearen bigarren galderari erantzuteko, hots « kontratuaren testua eta beste dokumentuak behar genituzke», horretaz arduratzen den zerbitzuari eskatuko dio igor diezazkiola.

- Bigarren galdera, Alaman jaunak egina, hiri erdiaren karriken jarduerari eta harriztatze partzialari buruzkoa, (ostiraletako arratsak – poteoa; eguerdi gastronomikoa terrazetan eta opzio gisa, girotze musikaren kentzea). Auzapezak ihardetsi dio gai horiek animazio batzordearen eskumenekoak direla, eta horrek laster landuko dituela aipatu hiru gaiak.  
Honako galderari dagokionez: « Beaulieu jabegoaren enkante salmenta ToLFEP-ekin egin dea?". Auzapezak erantzun du bi aldiz bildu dela ToLFEP-ekin eta txostena beren esku utzi duela. Auzapeza eta ToLFEP justizia mandatariarekin harremanetan sartu dira. Merkataritza Auzitegiko Presidenteak hartu zuen ordenantza kasu horretan parte diren lau anai-arrebekin, eta hauek helegitea ezarri dute beren abokatuaren bidez, berme gisa, eta honela herriari eskatzen diote Departamenduko Kontseiluari eman diezaion biribilgunea egiteko beharrezkoa den lur saila. Bistan dena, horretara engaiatu gara Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren eta herriaren interesekoa baita biribilgune hori egitea. 2021eko irailean Herri Biltzarrari proposatuko zaio Kanbo herria eta ToLFEP-en arteko hitzarmen bat onestea.
- Aiçaguerre andereak galdetu du ea posible litzatekeen haurrentzako komunak ezartzea San Josepe joko eremutik hurbil.

Auzapezak zerbitzu teknikoei pasatuko die eskaera ahal den neurrian baikorki erantzun dezaten.

## – Informazioak.

- Auzapezak adierazi du 2022an ez dela egonaldi zergaren prezioetan aldaketarik izanen.
- Auzapezak Aiçaguerre andereak derrigorrezko afitxatzeari buruz egin galderari erantzun dio. Frantziako Ingurumen Kodeak herri bakoitzak afitxatze librearentzat ezarri behar duen azalera finkatzen du, eta hori bere eremuaren azalera eta biztanle kopuruaren arabera. Kontuan izanik 2018ko INSEEn azken erroldak 6 718 biztanle zenbatu zituela Kanbon, 8 m<sup>2</sup>ko afitxatze azalera ezarri behar da eta afitxatze puntuak beren artean gehienez kilometro batez urrunduak izan behar dute. Beraz, Gaztetxearen horman afitxatze puntu bakarra ezartzearekin aski da.
- Auzapezak jakitera ematen du Haize Hegoa elkarteak turismo bulegoaren bigarren estaian den larrialdi etxebizitza etorkin familia batentzako eskura ezartzea eskatu duela, jakinez familia ama batez eta Kanbon eskolatuak diren bi haurrez osatua dela. Gainera familia horrek badu Frantziako Lur Eremutik Joateko Behamrendua (OQTF). Alokatzeko kontratua izenpetua izan da elkartearekin 2021eko uztailaren 1etik irailaren 15era, hilabetean 100€ren truke, kargak barne.

- Magis jaunak ToLFEP-i buruzko informazio gehigarria eman du. ToLFEPekin lur funtsen ikerketa bat abiatu da eta lehen emaitzak eman ditu. ToLFEPak esku har dezakeen eremuak identifikatu dira bereziki herri erdigunean aurkeztuko diren DIA-k laguntzeko. Asmoa litzateke lur funtsen behaketa/zainketa baten egitea eta horrela etxe bat salgai balitz segidan lehentasunez erosteko eskubideaz baliatzea, izan etxebizitzak nola saltokien egiteko, baina bereziki herri erdiko merkataritza mantentzeko.
- Lassus jaunak jakitera ematen du 2021eko ekain bukaera atera behar zen 19. herri aldikaria azkenean uztailaren 14a aitzin banatuko dela.
- Alaman jaunak hitza hartu nahi du saioa bukatu aitzin. Bere hastapeneko galderen egiteko eskaeran bi galdera ez zituen markatu. Orain eskatzen duena da bi galdera horiek idaztea eta beste aldi batez erantzunaren emateko gisan. Lehena, Bernadette Jougleux aretoaren erabilpen araudiari buruzkoa da eta bigarrena, artxiboei buruzkoa, eta bereziki ondare, hirigintza, auzo eta etxeetako artxiboei buruzkoa. Horien kontsultatzeko prozeduraren berri ukan nahi luke.

Auzapezak ihardetsi dio bi galderak hurrengo herri biltzarraren solasgaietan txertatuko direla.

Bukatzeko, Alaman jaunak Marienea ordokiari buruz adierazpen laburra egin du. Bouygues-en proiektuaren egiteko eraikitze baimena terrenoan afitxatua izan da: horrek erran nahi du herriak eman duela baimen hori eta auzapezak izenpetu duela.

Auzapezak hitza moztu dio eta zehaztu adierazpen hori ez zela solasgai idatzia, eta saioa hetsi du.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:40etan hetsi du.